

URTEKARIA

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

2023

BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA.EUS





Ez baduzu hanka
sartu nahi,
sartu zure iragarkia
IragarkiLaburrak.eus
atarian



• OARSO BIDASOKO •
HITZA

Argitaratzailea:

Oartzualdeko Hedabideak EM

Lege Gordailua:

ISSN-0793-03.

Zuzendaria:

Urko Etxebeste Petirena.

Sustapen arduraduna:

Ekaitz Zabalza Gaztelu.

Produktzio arduraduna:

Allende Arnaiz Garmendia.

Egoitza nagusia:Irun kalea 8 behea,
20100 Erretereria-Orereta.**Telefonoa:**

943 34 03 30

E-posta:

oarsobidasoa@hitza.eus

Webguneak:bidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
oarsobidasoa.hitza.eus**Publizitatea.**

Egoi Carrizo Uranga.

Telefonoa:

647 35 42 54

Posta elektronikoa:

ecarrizo@hitza.eus

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua
(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):**943 30 30 35****harpidetza@hitza.eus****oarsobidasoa.hitza.eus**
oarsoaldea.hitza.eus
bidasoa.hitza.eus

HITZA

Hemengo eta hango gatazkak, kalean


Maiatzaren 28ko udal hauteskunderi begira izan dira herritarrak 2023aren zati handi batean. Edonola ere, euren kezkek kalera atera dituzte, bertako eta urruneko gaien gaineko gogoeta zabaltzeko.

URKO ETXEBESTE PETIRENA

Urte bizi-bizia izan da 2023a. Udal hauteskunderi markatu dute datozen lau urteetarako herriek izango duten norabidea: Hondarribian, Lezon eta Pasaian gobernu aldaketak izan dira, eta Erretereria-Oreretan, Oartzunen eta Irunen kolore txandaketarik ez da izan. Irunen, PSE-EEren barruko aldaketa: 21 urtez alkate izan ondoren, Jose Antonio Santanok erabaki du ibilbide politikoa Madril jarraitzea.

Bestelakoan, oso nabarmena bai Bidasoan zein Oarsoaldean osasun arreta publikoaren gaineko kezka. Bidasoan urte osoan izan da Osasun Bidasoa plataforma eskualdeko gabezien berri ematen, eta horien konponbiderako proposamenak egiten. Oarsoaldean, urtearen bukaeran batez ere eskualdean herritar gehien artatzen dituen Erretereria-Oreretako Iztieta anbulatorioaren egoeraren gaineko kezka azalera atera da.

Palestinako herriari elkartasuna, euskararen kontrako oldarraldiei erantzuna, azaroaren 30eko greba orokor feminista... Kaleetan ere hitz egin dute herritarrek. ✕



INDUA IZATEA BIZTIA
SKUBIDEA DA.
TAINZA GUTION ARDURA DA.

OARSA DEKO MUXIKEMENDU FEMINISTA

Zaintza irauli, dena aldatzeko

Greba Feminista Orokorra deitu zuen azaroaren 30ean Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Egungo zaintza ereduari aurrez aurreko erantzuna emateko baliatu zen eguna, eta aurretiko saretze lana. Herri guztietan askotariko mobilizazioak izan ziren.

URKO ETXEBESTE PETIRENA

Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba feminista orokorrera deitu zuen Hego Euskal Herria azaroaren 30eko. Ez zen izan lehen aldia feminis-

moak erakutsiko zuena badela gai kaleak hartu, gizartearen jarduna bera paralizatu, eta horren sostengu diren sineskera eta arauak auzitan jartzeko. Lehen aldia izan zen, ordea, greba feminista hori orokorra izango zela. Gizarte-ehun oro interpelatzeak lanketa exijitu zien tokian tokiko greba batzordeetako kideei. Mugarri izan zen eguna, ordea. «Inflexio puntu», mugimendu feministaren arabera. Hala baloratu zuten Oarsoaldeko eta Bidasoko talde feministetako kideek egunaren biharamunean.

Egunaren arrakasta zifretan baino, aurretik egindako lanketan kokatu behar

da. Egia da azaroaren 30ean, goiz-goizetik ilunabarrera arte askotariko mobilizazio, hitzaldi, elkarretaratze eta jarduerak egin zituztela greban aktiboki parte hartu zuten emakume eta gizonek. Gainera, goizean herrietan nahiz arratsaldean eskualdeetako buruetan egindako manifestazioak oso jendetsuak izan ziren. *Zaintza* hitzaren eta kontzeptuaren gaineko aldaera guztiak kalera atera ziren.

Sistema publiko komunitarioa

Baina ondorio kuantitatiboez gain, egunaren helburua zen batetik lehenagoko saretze lana iraunkor izatera iristea, arrastoa uztea, eta zaintzaren gaineko gogoeta partekatua zabaltzea, mugimendu feministako kideek eguna ezauzgarritzeko erabili zituzten argudioen arabera.

Hala, zaintza sistema publiko komunitario baten eskaera egin zuten azaroaren 30ean eta aurretik. Horretarako, egungo zaintza sistemaren krisia mahai gainean jarri zuten. «Beste zaintza eredu mota bat beharrezkoa da, publikoa izango dena, eta zaintzailea ez ezik, zaindua izaten ari den hori ere beste modu batean zainduko duena. Eta zaintzaren esparruan, ia beti, emakumeak dira ardurdun eta zapaldu. Zaintzak irauli nahi ditugu dena aldatzeko».

Zaintzarena ardura sozial bihurtu behar dela aldarrikatu zen azaroko azken egunean, eta ez negoziario. «Eraldaketa sozialerako neurriak bultzatu nahi ditugu, zaintzak merkatu onura izateari utz diezaien». ✕

Askotariko mobilizazioak jaso zituzten kaleak azaroaren 30ean. Denetan, zaintzaren gaineko gogoeta nagusi. HITZA





Maddi Sanz eta Mattin Sorzabalbere, Korrikaren lekukoarekin, San Juan plazan. A. A.

23. Korrikaren lehen lekukoa Irunek hartuko du

Azaroan jakinarazi zuten Korrika hirian hasiko dela. Asteak dira Irungo AEK-ko kideak antolakuntza eta saretze lanarekin hasi zirela.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

2023ko azaroaren 16an iragarri zuten AEK-ko kideek, Korrikaren antolatzaileek, euskaltegien eta euskararen aldeko

lasterketa ibiltari eta aldarrikatzailea 2024ko martxoaren 14an hasiko zela Irunen, hamar egun geroago Baionan bukatzeko. Urtekari hau inprentara bidaltzerako orduan ibilbide zehatzaren berri ez zuten eman oraindik.

Irungo AEK-ko kideek bazekiten aurretik hirian hasiko zela 23. Korrika. Euskararen eta euskalgintzaren munduaren erdigune izango delako Irun egun horretan, eta behar bezalako pres-taketa lanak egiteko denbora behar delako. Hortaz, azaroaren 16aren aurretik jada saretze lanarekin hasiak ziren euskaltegiko kideak. Korrikak harrera espezial eta handia merezi baitu. *Herria harro* izango da egitasmoaren leloa. Hala daude irundarrak.

Irungo AEK-ko kide dira Maddi Sanz eta Mattin Sorzabalbere. Lehena irteerako ekitaldien antolaketan buru-belarri lanean hasi zela badira aste batzuk. Sorzabalberak, berriz, bost hamarkada daramatza Korrikaren eraginpean, 1980ko hamarkadako lehen edizioetatik ari delako eskualdean hauspoa ematen AEKri, Korrikari, eta beraz, euskarari. «Poz handiz jaso genuen irteera Irunen izango zenaren berria», esan zuen Sanzek hasiera egunaren eta tokiaren berri publiko eman zenean; «Pozik eta harro gaude», berretsi zuen Sorzabalberak.

Batzordeak eta denda

Irunen urte bukaeratik ari dira Korrika Batzorde irekiak antolatzen. Beste herrietan aurki hasiko dira horiekin. Horrekin lotuta, abenduaren erdialdean Korrika Denda zabaldu zuten Errenteria-Oreretako Herriko Plazan, AEK-ren jardueraren orotariko materiala saltzeko; zabalik da oraindik, urtarilaren erdialdera arte. Irunen «ilusioz eta arduraz» bizi dute Korrikaren hasiera. Beste herrietan ere hala izango da. ✕

Oiartzo IKASTOLA
etorkizunerako bidelagun

Egindako tontorrek ematen dute berriei ekiteko indarra

www.oiartzoikastola.eus

Euskararen kontrako oldarraldiari aurre egin diote

Epaitegietatik euskararen normalizazioaren kontra iritsitako erabakiei aurre egin diete Oarsoaldeko eta Bidasoko herritarrek. Protestaldien unerik gorenena azaroaren 4ko Bilboko manifestazioaren aurretik bizi izan ziren.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

2023ko uztailaren 5ean, EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretoak tokiko erakundeetan (udaletan) hizkuntza ofizialen erabilera instituzional eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 dekretuaren aurkako ebazpena eman zuen. Hau da, udaletan aurrera eraman daitezkeen euskararen normalizazioaren eta sustapenaren aldeko politikak ukatu egin zituen. Arduradun politikoez kontsentsu osoz hartutako euskararen normalizazioaren aldeko arau eta dekretuak, beraz, epaitegiek etzanarazi zituzten.

Horregatik, eta aurretik epaitegietatik euskararen kontra hartutako beste erabakiengatik —tartean Irungo Udal-tzaingoko hamabi lanposturako euskara eskakizuna kentzearena— Euskalgingintzaren Kontseiluak manifestaziora deitu zituen herritarrak azaroaren 4rako, Bilbon. Euskararen kontrako oldarraldiari aurre egin zioten Oarsoaldeko, Bidasoko eta Euskal Herriko herritarrek Bizkaiko hiriburuko martxan. Milaka izan ziren.

Manifestazio horren aurretik, Irunen, Hondarribian, Pasaian, Errenteria-Oreretan, Lezon eta Oiartzunen, mobilizazioa deitzeko eta oldarraldiaren kontra



Oldarraldiaren kontra urriaren 27an Lezon egindako herri argazkia. Urko Etxebeste

daudela adierazteko hainbat ekintza egin zituzten herritarrek. Esanguratsuenak argazki kolektiboak izan ziren, lau haizetara zabaldu zirenak. Gainera, herriko plazetan ateratako irudi erraldoiez aparte, lantegietan, ikastetxeetan, elkarreetan, erakundeetan, kirol klubetan edo kultur taldeetan hainbat eta hainbat izan ziren *Oldarraldiaren aurrean*, *euskararekin bat*, *euskaraz bat* lelodun kartelarekin ateratako irudiak.

Gaztelaniaren nagusitasuna

Epaitegietatik iritsitako euskararen kontrako erasoak hizkuntzaren normalizazio prozesua «trabatu» eta egindako bidean atzera pausuk eragiteko «olatu erreakzionario, atzerakoi, eta euskarofor-

bo» gisa definitu zituzten tokian tokiko mobilizazioen deitzaileek. 2021an Irunen hasitako bidea, beraz, 2023an indartu egin dute epaitegietako ebazpenek: «Sententzia guztiek elementu komun bat dute. Gaztelaniaren nagusitasuna ezartzea herritarron hizkuntza eskubideen ginetik, eta beraz, oinarrizko eskubideen kaltetan». Epaitegien erabaki horiek ez dira isolatutzat hartu behar, joera orokor baten adierazle dira.

Azaroaren 4ko manifestazioaren aurretik ehunka izan ziren oldarraldiari aurre egitera kalera atera ziren herritarrak. Egun horretan bertan Oarso Bidasoko herritarrak tanta izan ziren Bilboko itsaso euskaltzalean. 2024an ere izango da zer aldarrikatu. X



Gi-636 errepidearen arriskuaz ohartarazi zuten urtarrilaren 14an. HITZA

Abiadura murrizteko errepidea moztu dute

Behobia eta Artia-Azken Portu auzoak lotzen dituen Gi-636 errepidearen gehieneko abiadura muga murriztea eskatzeko mobilizazioa egin zuten bertako bizilagunek.

URKO ETXEBESTE IRUN

Irungo Behobia eta Artia-Azken Portu auzoetako bizilagunen aspaldiko eskaera da Juan Thalamas Labandibar kalean ibilgailuen abiadura muga jaitea. Egunduko 50 kilometroko abiaduran joan daitezke gehienek ibilgailuak handik, eta 30era murriztea nahi dute irundarrek han izaten diren istripuengatik. Nahiz eta Irungo Udalak udalbatzarrean eta mozio bidez neurri hori onartua egon, auzotarren eskaerek ez dute erantzunik izan, Gi-636 errepidearen zati horren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiolako. Horren aurrean, auzotarrek errepidea moztu zuten urtarrilaren 14an. «Oraingo abiadura mugak istripuak eta biktimak eragiten jarraitzen du», esan zuten.

Bizilagunen arabera, errepide zati horretatik egunero 25.000 ibilgailu baino gehiago pasatzen dira, eta horietako asko salgai arriskutsuak daramatzaten kamioiak direla argitu dute. «Ibilgailu kopuru handi horrek auzoko biztanleekin, oinezkoen pasealekua eta bidegorria erabiltzen duten oinezko eta txirrindulariekin, Azken Portu kiroldegiko erabiltzaileekin eta kale horretan galekuak dituzten hiriko eta eskolako autobus erabiltzaileekin espazioa partekatzen dute».

Eremu hori «puntu beltza» dela adierazi zuten auzokideek urtarrilean, «baina dauden interes pribatu eta politikoen (Zaisako Plataforma Logistikoak, espekulazio urbanistikoak eta lurzorua erabilera aldaketak) ezinezkoa egiten dute abiadura murrizteko eskaera aurrerateratzea». ✕



Saneamendu sare integralaren alde

PASAIA. Donibaneko saneamendu integralerako auzotarren batzordeak bizilagunen beharrak lehenetsiko dituen plan eta obra baten aldeko urratsa egin zuen urtarrilaren 18an, udaletxean idazki bat erregistratuz ehunka herritarren, nahiz ostalarien eta merkatarien babesarekin (irudian). Dokumentuak jasotako eskakizunen arabera, proiektuak Donibaneko gune historikoaren saneamendua «bere osotasunean» jaso beharko luke; obra epeak murriztu beharko lirateke; eta bizilagunen, merkatarien eta ostalarien zerbitzurako gas naturalaren hornidura barnebidu beharko luke planak.

Zuntz optikoa landa eremura zabaldu dute

HONDARRIBIA. Interneterako sarbide egokia izateko egitasmoa jarri zuen Hondarribiko Udalak abian urtarrilean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Hala, herritarren eskaerari jarraiki, Zimizarga, Akartegi, Gornutz, Arkolla eta Amute auzoetako ehun baserri baino gehiagotan zuntz optikoa ezartzeko prozesuari bultzada eman zioten. Guneetako bakoitzean esku hartze berezia egingo zutela iragarri zuen orduan udalak.

Kexu ziren inguru horietan bizi zirenak Interneteko estaldura «eskasa» zutelako. Horri aurre egiteko hainbat eskaerak eginak zituzten, eta 2023ko urtarrilean abian jarritako planari esker saretarako konexio egokia izango dute hango biztanleek.

Igandeak Dantzan, ohiturak biziberritzeko

ERRETERIA-ORERETA. Garai bateko ohiturak berreskuratzeko asmoz, Igandeak Dantzan egitasmoa aurkeztu zuten urtarrilean. Adinekoentzat bideratutako egitasmoa da batik bat, eta herrian ohi-koak izaten ziren dantzaldiak eta horietan sortzen ziren harremanak berriz ere lehengoratzeko xedearekin hainbat saio egin dituzte urtean zehar. Lehenik, Gal-tzarabordako kiroldegian hasi ziren dantzaldiekin, eta gerora Gamon Zumardian bertan eta Niessenen ere egin dituzte saioak. Arrakastatsuak izan dira. Errenteriako Udaleko hainbat departamenduren eta erretiratuen klubetako ordezkarien arteko elkarlanean garatutako egitasmoa da.



Urko Etxehestea

Satrustegiren lurra, herriarentzat

LEZO. Eskaera zehatza egin zioten Amezti Baso Biziak Jaizkibel taldeak eta Etxetxo Lezoko Memoria Historikoaren taldeak udalari urtarrilean: Satrustegiren lurra desjabetu ditzala, herri erabilerarako. Espropiazioak Jaizkibelen dagoen 22 hektareako eremuari eragingo lioke, Iparragirre izenez ezaguna dena. «Lezoarentzat interes berezikoak dira lursail horren balio ekologikoa, hidrologikoa eta memoria historikoari lotutakoa. Horregatik, udalari laguntza eskatu nahi diogu, izaera partikularreko lur eremua espekulaziotik askatu, eta herri-tarren ondasun bilakatzeko». Eskaera jendartera zabaltzeko elkarretaratzea egin zuten Gurutze Santuaren plazan urtarrilaren 26an (irudian).



Pertsonen eta euskararen topagunea

ERRETERIA-ORERETA. Urtarrilean inauguratu zuten Joxepa Antoni Aranberri eraikina. Madalen kaleko 27. zenbakiko azpiegitura komunitarioa, garai batean kuartel edo liburutegi izandakoa, Lau Haizetara Euskaltzaleen Topagunearen, Xenpelar Bertso Eskolaren, Badalab hizkuntza berrikuntzarako laborategiaren eta SOS Arrazakeriaren egoitza berria da. Joxepa Antoni Aranberri bertsolaria eta ehulea izan zen.

Zaintzadi egitasmoari bultzada eman diote

OIARTZUN. Oiartzungo Udalak bakardade ez-hautatuan bizi diren helduen bizikaltatea hobetzeko asmoz, Zaintzadi sare komunitario proiektua abiarazi zuen 2022ko udaberrian, eta egindako diagnosiaren aurkezpena urte hartako azaroan egin zuen. 2023ko urtarrilean, berriz, hurrengo urratsari eki zioten, esku-hartze indibidualarena. Izan ere,

Proiektua bai, lanak ez

OARSOALDEA. Gipuzkoako Foru Aldundiak urtarrilean iragarri zuen, proiektua aurkeztearekin batera, Lezo-Donibane bidegorriaren azken faseko lanak uztailearekin batera hasiko zirela. Hasiera batean apirilean ziren hastekoak obrekin, baina uztailean Tourra bertatik pasako zenez, lanei kirol probaren ondoren ekiten erabaki zuen foru erakundeak. Urtekari hau inprentara bidaltzean oraindik ez ziren lanak hasi.

Aldundiak aurkeztutako proiektuaren arabera, bizikleta eta oinezkoentzako pasabidea izango da egingo dutena, 270 metro luzekoa eta hiru metro zabalekoa. 1,5 milioi euroko kostua izango dute laneak, eta hiru fasetan egikarrituko dituzte. Berezitasun bat du: portuko lur eremuaren gainetik joango da pasabide hori. Behin lanekin hasten direnean, bost hilabeteko epean bukatuko dituztela iragarri zuen aldundiak.

udalak identifikatuta zituen egoera zaugarrian dauden pertsonak, eta urtarrilean hasi ziren beraien beharrak zein diren ikusten eta proiektuan parte hartu nahi duten galdetzen.

Hala ere, bakardade ez-hautatuan bizi diren lagun gehiagoren berri izateko, eragileen inplikazioa eskatu zuten. Udalak jasotako datuen arabera, oiartzuarren %93k ezagutzen du bakardade ez-hautatuan bizi den norbait. Hor eragiteko sortu zuten Zaintzadi.

• Depilazioak (argizaria, laserra eta haria)
• Aurpegi eta gorputzerako tratamenduak
• Masajeak • Solariuma • Makillajea
• Manikura eta pedikura

Irati Estetika Zentroa

Biteri kalea 2, behea.
Errenteria - Orereta
Tel.: 943 25 02 77
Mugikorra: 688 845 501

OTSAILA



Mikel Del Val

Pentsiodunak, bost urte kalean borrokan

ERRETERIA-ORERETA. 2018an Fatima Bañez Espainiako Gobernuako Enplegu ministroak pentsioak %0,25ean igoko zirela esan zuen. Erabaki horrek pentsiodunak haserrarazi zituen, eta kalera irten ziren mobilizatzen. Otsailan bost urte eta 230 astelehen bete zituen Duintasunaren mugimenduak, eta egun, kalean jarraitzen dute. Otsailan argi utzi zuten «premiazko eta ezinbesteko» aldarrikapenak eskatzen jarraituko dutela.

Psilocybenea aretoak 30 urte bete ditu

HONDARRIBIA. Psilocybenea aretoak, emanaldietarako, entseguetarako zein grabazioetarako espazioak, 30 urte bete ditu 2023an. Izatez udal azpiegitura da, baina Psilocybe elkarteak kudeatzen du ia autonomoki. 30 urtean 200 taldetik gora igaro dira aretotik, eta Hondarribiko kultur mugimenduaren erreferente argietakoa da. Hiru hamarkadak ospatzeko hainbat jarduera egin zituzten urtean zehar.



HITZA



Ane Mendizabal

Oroimena eta egiaren bidean, urrats berri bat

OIARTZUN. Bizikidetzaren eraikitzen jarraitzeko oroimenaren eta egiaren bidean, urrats berri bat eman zuen 2023an Oiarzungo Udalak, Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera: Oroimenaren Txokoa aurkeztu eta inauguratu zuten otsailaren 4an, Arizmendieneako lorategian. Aldi berean *Oroimena Oiarzun* webgunea aurkeztu zuten, eta orain artean elkarteak aztertutako giza eskubideen urraketak jasota daude bertan. Horrez gain, azken bost urteetan bizikidetzaren mahaia egindako urratsen berri eman zuten.



Ane Mendizabal



Olaia Gerendain

SU OLINPIKOA PIZTU DUTE HONDARRIBIAN

HONDARRIBIA

Otsailaren 25ean hasi ziren 2023ko Hondarribiko Olinpiadak, 26 talderekin. Las-targia Josu Belea taldeak piztu zuen, azken edizioko irabazlea izan baitzen. 2023ko garailea, berriz, Amonan Xalda Berua izan zen. Gainera, 2024ko olinpiadak aurreratzea erabaki zuten, eta azaroaren 25ean abiatu zituzten, 31 talderekin.

Euskararen II. Plan Estrategikoa onartu da

PASAI. Pasaiko udalbatzak aho batez onartu zuen udalbatzarrean Euskararen II. Plan Estrategikoa. Bokalek, Pasaiko Euskararen Aholku Batzordeak osatu zuen plana eta bere xedea da udalerriko ahalik eta eragile gehien batzea euskara-
ra. Orotara, zortzi lan ildo finkatu zituzten datozen urteotan Pasaian euskararen alde egiteko.



Alaine Aranburu

Goi mailako lehiaketa utzi du Ander Elosegik

IRUN. Ander Elosegi piraguista irundarrak goi mailako lehiaketa utziko zuela jakinarazi zuen otsailean. Ia bi hamarkada izan dira piraguismoari lotuta, eta agur esateko momentua zela adierazi zuen kirolariak. «Ez da erabaki erraza izan, baina uste dut uzteko momentua iritsi dela».

Hamazazpi urteko ibilbidea osatu du Elosegik, eta erreferente izan da bere kirolean. Lau Olinpiar Jokotan jarraian hartu du parte, eta denetan izan da finalerik. Lau diploma olinpiko dauzka, eta dominatetik gertu izan zen bitan, laugarren postuan sailkatu baitzen Pekinen 2008an eta Londresen 2012an. Munduko eta Europako Txapelketetan ere barkarkako eta taldekako hainbat domina eta ohorezko postu erdietsi ditu.

«Kontent» da urte horietan guztietan egindako lanarekin eta emaitzekin; baina argi du lorpen guztien gainetik «ezagututako jendearekin, piraguismoak emandako bizipenekin eta taldekide guztiekin» geratzen dela.

Arraitokiko eremua Lezorena da

LEZO. Lezoko Udalak eta Pasaiaiko Portu Agintaritzak (PPA) akordioa sinatu zuten, Arraitokiko eremuaren gainekoa. Portuak Lezori 4.422 metro koadroko zonalde hori (Bekoerrotako kiroldegiaren ondokoa) doan eman zion. Eremuari «erabilera asko» emango zaizkiola aurreratu zuen Jesus Mari Martiarena orduko alkateak. Akordioa Martiarenak eta Joakin Telletxea PPAko presidentek sinatu zuten. Aurretik, akordioari oniritzia emateko udalbatzarra egin zuten: EAJk eta PSE-EEk alde egin, eta EH Bilduk abstentziora jo zuen. Aurrera ateratzen akordioa baimentzeko proposamena. Lezoren aspaldiko nahi zen Arraitokiko bere egitea.

Arraitokirako hainbat proposamen zabaldu zituzten 2023ko maiatzaren 28ko udal hauteskundearen harira herriko alderdi politikoei. Denetan komuna zen herritarren onurarako izango diren azpiegiturak jaso behar dituela orubeak, tartean kultur eta gizarte azpiegiturak nahiz aparkalekuak direla.



Lezoko Udala

LGTBI+ kolektiboari, ikusgarritasuna

ERRETERIA-ORERETA. Uxue Diez Guiral, Maite Azabal Gallego, Ane Fernandez Trigo eta Aitor Narbarte Alvarez ikertzaileentzat izan zen 2022ko Koldo Mitxelena XVI. Ikerketa Beka, #Kuiro-rartxibobizia izeneko proiektua egiteko. Otsailean eman zuten irabazleen berri.

Ikergaia LGTBI+ kolektiboari izango dela aurreratu zuten, «ikusgarritasuna eta aintzatespena» eman nahi baitiete lesbiana, gay, transgenero, transexual, bisexual, intersexual, queer eta +ean sartutako identitatei. «Eredu heterosexualeko hegemonikoari alternatibak» eskaini nahi dizkietela azaldu zuten irabazleek, «pertsonek bakoitzak nahi duen moduan bizitzeko».

Bi urte Aiako Harriko suteetatik

IRUN. 2021eko otsailaren 20an sutea piztu zen Beran, eta azkar batean Iruneira iritsi zen, Aiako Harria Parke Naturalera, hain zuzen. Bi urteren ondoren, naturaren bere onera itzultzeko indarra ikus zitekeen 2023ko otsailean. Orotara, 1.800 hektarea erre ziren Irun, Bera, Lesaka eta Biriaturko lurretan: horietatik, 360 hektarea, Irungoak. Baso suteak bi egun iraun zituen. 2021eko otsailaren 21ean sua egonkortu, haizea lasaitu, euria hasi eta itzali egin ahal izan baitzuten Gipuzkoako, Lapurdiko eta Nafarroako suhiltzaileek.

JARRAI DEZAGUN
URTEKO HISTORIA
ETA ISTORIOAK
ELKARREKIN IDAZTEN

 **orereta**
ikastola
AURRERA!



www.oreretaikastola.eus



Mikel Martin Conde martxoaren 2an zendu zen, gaixotasun baten ondorioz. I. Zarate

Hamaika borrokaren ekintzaile Mikel Martin Conde hil da

Berehala zabaldu zen samina. Hamaika borroketan engaiatua, batez ere sexu askapenaren aldeko borrokan izan da erreferente oreretarra. Mikelaldiak aitortu dio ibilbide oparoa eta ekarpen itzela.

IKERNE ZARATE ERRENTERIA-ORERETA

Martxoaren 2an hil zen Mikel Martin Conde (1954-2023), 2022ko uda aurretik diagnostikatu zioten gaixotasun baten ondorioz. Samina berehala zabaldu zen herrian zein herritik gaindi ere, Martinen itzala urrutira heldu zelako bere ibilbide oparoan. Hamaika borrokaren ekintzaile, arrasto itzela utzi zuen Martinek. Maitasuna, errespetua eta iraultza ziren haren ezaugarriak, eta bere konpromiso politiko eta sozialak ez zuen mugarik. Sexu askapenerako mugimenduentzat erreferente izan zen Martin.

1970eko hamarraldian hasi zen militatzen EHGAren, eta geroztik ezinbestekoa izan da mugimenduan. Borroka politiko eta sozial askotan engaiatu zen oreretarra, eta guztietan eramaten zuen

batetik bestera ortzadar koloreko bandera, LGTB mugimenduaren ikuspuntu hori gainerako borrokekin lotuz. Hiesaren kontrako borrokan ere erreferente izan zen Martin.

Ekintzaile handiaren neurrira egindako herri omenaldia josi zuten haren lagunek, familiak eta Errenteria-Oreretako hamaika eragilek. Martxoaren 2an zendu zen hamaika borrokaren urratzailea; orduan agur ekitaldi ederra eskaini zioten, baina orduan hitza eman zuten Martin merezi zuen moduan omenduko zutela aurrerago. Irailaren 23an egin zuten Mikelaldiarekin heldu zen aitortza hori. Goxoa, ederra, lotsarik gabea, eta konprometitua izan zen omenaldiaren bueltan antolatu zuten ekintza bakoitza, Mikel bera zen bezala, eta argi utzi mundua apur bat askeagoa, apur bat ederra goa dela hari esker. ✕

Lartzabal eta Amute Kosta lotuko dituzte

OARSO BIDASOA. Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostia eta Irun bidegorri sare baten bidez lotzeko proiektua aurkeztu zuen. Egitasmoa mugikortasun jasangarri eta aktiboa sustatzeko eta Atlantikoko korridorea Europako ardatzarekin lotzeko sustatu dute. Donostia eta Errenteria arteko zatia honezkerora eraikia badago ere, Errenteria-Oreretako Lartzabal auzotik Hondarribiko Amute-Kostara joango den trazatua da aurkeztu zutena. Proiektuak zortzi zati ditu, eta ibilbideak bat egingo du Bidasoko eremu horretan honezkerora eraikia dagoen bidegorri zatiarekin. Lehenengo aurreikuspenen arabera, 10 kilometroko ibilbidea osatzeko obrek sei urte iraungo dute, eta aldundiak 22 milioi euro bideratuko ditu lanotara.

Eguzki taldea, eszeptiko

Eszeptiko azaldu zen Eguzki Talde Ekologista bidegorri sarearen gainean aldundiak zabaldu berriaren inguruan. Izan ere, gogorarazi zuten 2013an onartu zutela Gipuzkoako Batzar Nagusietan Bizikleta Bideen Plana, eta txosten horren arabera, 2021etik erabilgarri behar luke Donostia-Irun bidegorriak. Ildo horretan, salatu zuten oraindik bidegorriaren proiektua ez zutela aurkeztu ere egin, azterlana zela ondu duten bakarra, «hau da, proiektuaren aurreko dokumentua».

Azterlan horretan jasota dago Gipuzkoako hiriburutik, herrialdearen ekialderaino doan zatia 6 urtetan egin behar zutela, 2029rako amaituta egongo zela. «Beraz, 2021ean martxan behar zuena 2029ra atzeratu dute», deitoratu zuten Eguzkik.

Epeen gaineko kezka berriro mahai gainean jarri zuten Eguzkik, eta hainbat adibide zerrendatu bukatu gabeko zatiak ikusarazteko, esaterako, Lezo eta Pasai Donibane artean bidegorria bukatzeko falta diren 270 metroak: «Atera kontuak zer gerta daitekeen Errenteria eta Irun bitarteko 10 kilometroetan».



HITZA

Zortzi auzoak lotuta ditu bidegorriak

OIARTZUN. Gurutze eta Elizalde auzoak lotzen dituen bidegorria bukatu zuen udalak. Pandemia baino lehen Karrikaraino joaten dena egin zuten, eta Gurutzekoarekin, auzo guztietara iristen da bidegorria. Bi kilometro eta erdiko luzera du bide berriak. Gurutzeko aparkalekutik abiatu, Malkorra hotelaren atzealdetik pasa eta Fraileen Bideraino joaten da, hortik Legarre kaleraino iritsi arte. Orotara, 635.000 euroko inbertsioa egin zuen udalak herriko sarea osatzeko lan horietan. Herriko bidegorri sarea hamalau kilometro luzekoa da, Gipuzkoan gehien duenetako bat, eta egunero ehunka lagunek erabiltzen dute.

‘Paradisu zinema’ beka sortu dute

IRUN. Iñigo Muguruza musikari irundarrak arrasto handia utzi du Euskal Herriko musikan; horren harira, *Paradisu zinema* beka sortu zuten haren azterna gogoan izateko eta egungo musikarien lanak sustatu eta laguntzeko helburuz. Elkar argitaletxea, Antxeta Irratiak eta EHZ Festibalak sortu zuten beka. Grabatzeko xedearekin pentsatutako proiektuak aurkeztu behar dituzte musikariek beka horretara, originalak izan behar dute, eta euskaraz sortutakoak.

Beñat Goitia gasteiztarraren *Benizze* proiektuak irabazi zuen beka. 2024ko Euskal Herria Zuzenean jaialdian kontzertua emateko aukera ez ezik, diskoa ekoiztu, editatu eta sustatu ahal izateko 10.000 euroko diru laguntza jaso zuen.



Ikeme Zarate

GREBA USAINA HARTU DU MARTXOAREN 8AK

OARSO BIDASOA

Emakumeenak izan ziren kaleak berriro, eta manifestazio jendetsuak egin zituzten Martxoaren 8aren harira Oarsoaldeko eta Bidasoko herrietan. Borroka artikulatu bat planteatu zuten egun horretatik aurrera, greba feminista orokor baterantz. Bide horretan, saretzera, ez isiltzera, autodefentsara, barne indarra ateratu.

«Herriaren palazioak» zabaldu ditu atekak

OIARTZUN. Herriko bizitza eraldatzera zetorren espazioak atekak zabaldu zituen martxoaren 10ean: Landetxek. Euskalgintzak, kulturgintzak eta adinduentzako espazioek bat egin dute han. Inaugurazio ekitaldian 400 herritar izan ziren. Ekitaldi horretan Jexux Leonet alkateak eta Eneritz Arbelaitz zinegotziak azaldu zuten Landetxe eraikina dagoen tokian, XVIII. mendean, urdiñolatarren palazioa zegoela: «Orain, beste palazio bat egin dugu hemen, euskararen, kulturaren, ongizatearen eta zaintzaren palazioa. Guztion artean zaindu eta bizia eman behar diogu honi».

Eraikinaren inaugurazioaren atzean, 2016an hasitako parte hartze prozesua dago. Izan ere, proiektuaren hastapenertara joateko, zazpi urte atzera egin beharra dago. Aurreproiektu horren aurkezpena egin zuten publikoki 2017ko azaro-



Erik Gartzia

an. Jende asko hurbildu zen orduko saio hartara. Ondoren ekarpen fase bat ireki zuten, herritarrek eta eragileek beren proposamenak helarazteko. Prozesu guztian kultur eragileekin, Gazte Iznak-ekoekin eta euskalgintzaren munduko kideekin eskutik helduta ibili zen udala. 2020ko urtarrilean hasi ziren eraikineko lanak. Pandemia bat tarteko lanak atzeratu baziren ere, martxotik du zabalik Oiartzunek «herriaren palazioa».



Hainbat gurasok haurrentzat parke eta espazio egokiak eskatu zituzten. U. Etxebeste

Parke duinak eskatzeko bildu dira Lezon hainbat guraso

Parkeek ez dituztela ume, haur eta nerabeen beharrak asetzen sinistuta, haientzako aisirako espazio duinak aldarrikatzen hasi ziren hainbat guraso. Parke sarea eraberritzeko prozesua martxan da.

IKERNE ZARATE LEZO

«Lezoko parkeek eraldaketa eta zaintza» behar dutela aldarrikatzeko lanean hasi ziren. Pankartak jarri, talde argazkia atera eta sinadura bilketa ere abiatu zuten. Herriko guraso talde baten ekimenez sortutako mugimendua gorpuztu zuten herrirako haur parke duinak aldarrikatzeko: orduko udal gobernuari parkeen gaineko ardura har dezala eskatu zioten, hobetu, zaindu eta egoki mantentzen zitzan. Lezoko haur parkeek ez dutela 0-2 urte arteko haurren beharrik bermatzen, po-break direla oso, nerabeek ere ez dutela eskaintzarik, eta abandonatuta, zikinak eta puskatuak daudela salatu zuten.

Hainbat mobilizazio egin zituzten herrian, eta Lezoko ume, haur eta nerabeei ahotsa eman zieten, haien aisialdirako

egokiak izango diren espazioak aldarrikatzeko.

Guraso horiek partekatutako kezka bere egin zuen udal gobernu berriak, eta Lezoko parke sarea eraberritzeko proiektua aurkeztu zuen 2023ko azaroan. Anbizio handiko proiektua da. Izan ere, udalerrian haur eta gaztetxoei begira diren parke eta aisialdi eremu denak aztertu nahi dituzte prozesu parte hartzaile baten bidez. Proiektuaren bidez, beste hainbat espazio natural ere txertatu dituzte lanketa horretan, Pisbeko baratze ingurunea, Xoxolur eremua, eta Zubitxo erreka eremua tartean.

Hiritik At kooperatiba ari da proiektua bideratzen udalarekin elkarlanean. Herriko eragileak ari dira jada euren iritzia ematen, parte hartze prozesuaren barruan. 2023aren bukaerarako jada hainbat saio eginak zituzten. ✕



Dunboa kanala eraiki zutenen omenez, plaka

IRUN. Irungo Udalak Nicolas Grendiain elkarte errepublikazalearen eskaerari erantzun zion, eta plaka bat jarri Dunboa kanalean, hura eraikitzen lan egin zuten 207 presoek omenez. Aiala Oronoz irundarrak 2019an *A pico y pala. Trabajos forzosos en Gipuzkoa. Destacamento penal de Irun* liburua argitaratu zuen, eta 207 preso horien gaineko informazioa jaso zuen. Irundarraren ikerketaren arabera, 1942aren bukaeratik 1944aren hasiera bitartera frankismoaren esklabo horiek eraiki zuten kanala. Gehien-gehienak Andaluzia, Asturias eta Extremadurakoak ziren.

CAF-Elhuyar saria Iñaki Sanz Azkuarentzat

HONDARRIBIA. Hondarribian egokitutako Iñaki Sanz Azkue biologo herna-niarrak CAF-Elhuyar saria jaso zuen. Zientzia-kazetaritza kategorian saritu zuten Sanz, *Dragoi txiki bat egongelako horman* lanagatik. Epaimahaiaren arabera, «gai garrantzitsu bat» landu zuen biologoak: klima aldaketa. Gaiaz harago, zein ikuspegirekin landu zuen nabarmenezkoa iruditu zitzaion epaimahaiari. Izan ere, klima aldaketari lotutako artikuluek hondamendi kutsua izaten dute maiz, eta Sanzek, aldiz, «xumetik eta txikitik» heldu dio gaiari. Estilo «argia eta atsegina» erabili izana ere aitortu zioten antolatzaileek.

2.000 euroko diru saria eta Imanol Andonegi Mendizabalen eskultura jaso zituen Sanzek.



HITZA

Erabilera askotarako pabiloia aurkeztu dute

IRUN. Jose Antonio Santano alkateak, apirilaren 12an aurkeztu zuen erabilera askoko pabiloiaren egitasmoa. Datuetan zentratuta, ez zuen azpiegituraren kostuaren berri eman. Bai, ordea, edukierari dagozkionak: kirol ekitaldietarako 5.200 eserlekuko gaitasuna izango luke; aisia esparruko ekitaldietarako, berriz, 10.000koa. Egitasmoa aurrera ateratzeko erakundeen arteko elkarlana beharrezko jo zuen Santanok, «erakundeen arteko elkarlana da egitasmoa arrakastatsua izateko modu bakarra».

Iniziatiba horrek gainontzeko alderdi politikoen erreakzioak azaleratu zituen. EH Bilduk gogorarazi zuen 2022an proposatu zutela proiektu hori Irunek kirol azpiegiturretan duen «eskaintza eskasari erantzun bat emateko». Pozik azaldu zen egitasmoa «azkenean» aintzat hartu delako. «Hiriaren egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko aukera leihogisa irudikatzen dugu, eta eskualde osoko kirolaren eta kulturaren hauspotzea bultzatu dezakeen egitasmo gisa».

Alkatearen proposamena «positiboki» baloratu zuen Elkarrekin Podemos-IUk, baina gauatzeko Irungo Udalaren aurrekontuaren erdia erabili beharko litzatekeela. Hartara, beste proiektu batzuk lehenestearen alde agertu zen.

Hauteskunde programan txertatua zeukala proiektu hori esan zuen EAJk, eta «berandu zetorrela» gaineratu. Diru kontuak aipatu zituen: «43 milioi euro behar dira». Irungo Udalak inbertsioaren %25 jartzea proposatu zuen, 10 milioi euro; aldundiak 25 milioi jarriko litzuzke, eta gainerakoa Eusko Jaurlaritzako eta Kirol Kontseilu Gorenak.



HITZA

Ipar martxako lehen ibilbidea, prest

ERRETERIA-ORERETA. Ipar martxako lehen ibilaldi homologatua estreinatu zuen Erreteria-Oreretak. Gipuzkoako Mendi Federazioak homologatutako SL-GI56 ibilbidea da. 9,5 kilometroko ibilbidea da, zirkularra, 130 metroko desnibela du, eta Erreteria-Oreretako auzoetatik pasatzen da, parkeak lotuz. Diseinuaren atzean Urdaburu Mendizale elkarte dago. Oztoporik gabea da ibilbidea, eta inklusiboa.

Bost Eguzkitxo banatu ditu Repsol Gidak

OARSOALDEA. Mundu mailako gidarik famatuenetako bat da Michelin Gida, eta haren gisakoa da Repsolena, Espainiako Estatuari mugatutakoa. Gidak hainbat kategoriatan banatzen ditu gomendioak, eta horietako bat Eguzkitxoak dira. Halako bost banatu zituen Oarsoaldean: Hiru Pasaiaiko establezimenduak dira, Donibanekoak zehazki, eta beste bi Oiartzungoak. Bakoitzari buruz iruzkin bat egin zuten gidan.

Ontziola jatetxea izan zen eguzkitxoak jaso zuenetako bat; zapore handiko janari tradizionala du ezaugarri. Alabortza kantina izan zen Donibaneko bigarrena, parrilan egiten dituen sardinengatik da ezaguna. Hirugarrena, Piedade artisau-izozki denda. Oiartzungoak, berriz, plater aukera handia duen Intxixu jatetxea, eta Aiako Harria Parke Naturelean kokatuta dagoen eta janari tradizionala eskaintzen duen Pikoketa jatetxea.



Imanol Saiz

TXIRRINDULARITZAREN FESTA HANDIA

ERRETERIA-ORERETA

Erreteria-Oreretatik abiatu zen Euskal Herriko Itzuliaren hirugarren etapa apirilaren 5ean. Zumardia eta erdiguneko kaleak jendez bete ziren, zientoka lagunek ez zuten hitzordua galdu nahi izan. 153,9 kilometroko etapari ekin zioten txirrindulariek, eta Villabona-Amasan bukatu. Txirrindularitzaren festa izan zen.

ERIK GARTZIA EGAÑA

Maiatzaren 28a izan zen 2023an foku gehien jaso zuen eguna. Izan ere, udal hauteskundeak egin zituzten egun horretan, eta Oarsoaldean zein Bidasoa aldean askotariko emaitzak utzi zituen. Aipagarriena Hondarribian gertatu zen: Abotsanitzek, aurkeztu zen hirugarren aldiari, hauteskundeak irabaztea lortu zuen. Hiri gotortua EAJren gotorlekue-tako bat zen Gipuzkoan, baina ezkerreko hautagaitza abertzaleak *sorpasso*-a egin zien maiatzeko azkeneko igandean. Ozta-ozta irabazi zuen Abotsanitzek, 48 botorengatik, baina alde hori nahikoa izan zen EAJk baino zinegotzi bat gehi-ago lortzeko (zazpi lortu zituzten irabaz-leek). Aro aldaketaren alde egin zuten hondarribiarrek, nabarmen: 2.834 boto jaso zituen Abotsanitzek, duela lau urte baino 910 gehiago. Bigarren postuan geratu ziren jeltzaleek 2.786 boto eskuratu zituzten, aurreko zitan baino 1.096 gutxiago. Atzetik geratu ziren PSE-EE eta EH Bildu, hurrenez hurren, beharakada txiki banarekin, baina bi zinegotzietan eutsiz. EH Bildu koalizioak babes eman zion Abotsanitzek, eta aldaketa berretsi zen ekainaren 17an.

Bidasoan jarraituta, Irunen ez zen sorpresa handirik izan: *santanismoa* esaten zaion fenomenoak gailendu zen, 8.123 boto eta hamar zinegotzirekin. Atzetik, EAJk bere zazpi ordezkariak mantendu zituen, 5.738 paper lortuta. Hala ere, bi alderdiek boto jaitziera nabarmena izan zuten. EH Bildu hirugarren indarra izatera pasatu zen, zinegotzi bat gehiago eskuratuta, eta Elkarrekin Podemosek hondoa jo zuen. PP igo egin zen, eta IZAI eta Vox zinegotzietan atarian geratu ziren. Alkatea hautatzeko plenoan ez zen sorpresarik izan, eta Jose Antonio Santano hautatu zuten alkate. Hala ere, hilabete gutxi batzuk besterik ez zituen iraun karguan.

Oarsoaldea, EH Bildurena

Oarsoaldea kolore bakarrarekin dindatu zen maiatzaren 28an: EH Bilduren berde argiarenarekin. Oiartzunek koalizioaren gotorleku izaten jarraitzen du, eta



'Sorpasso' historikoa egin zuen Abotsanitzek pasa den maiatzean. HITZA

Udalerrien erdian, aldaketa; besteetan, gauzak berdintsu

Eskualde buruetan eta Oiartzunen udal hauteskundeak utzitako emaitzetan ez da aldaketa handirik izan. Pasaian eta Lezon agintemakila eskuz aldatu da, baita Hondarribian ere, emaitza historikoan.

gehiengo osoa mantentzen jarraituko du. Gainera, Euskal Herrian dagoen udal talderik jendetsuena izango da Oiartzungoa: hamahiru ordezkari lortu zituzten, aurrekoan baino bat gehiago. Joana Mendiburu izendatu zuten alkate, 11 aurpegi berri dituen gobernuan. EAJk zinegotzi bat galdu, eta laurekin geratu zen.

Errenteria-Oreteran, berriz, Aizpea Otaegik jarraituko du alkate izaten, bederatzi ordezkarietako eutsita. Boto jaitziera sinbolikoa izan zuten, baina ehunekotan gora egin zuten: boto-emaileen %41,7k — 6.717 papertxo jaso zituzten — babestu zuen koalizioaren eskaintza. Elkarrekin Errenteriarekin gobernatzen jarraituko dute; moreek zinegotzi bat galdu zuten, PPren mesedetan. PSE-EEK, bere aldetik, 700 boto baino gehiago galdu zituen, eta EAJk, beste 500. Aurreko zinegotzi kopurua mantenduko dute biek: sei eta hiru, hurrenez hurren.

Badiaren inguruan izan zen aldaketarik handiena. Lezon zein Pasaian EH Bildu nagusitu zen. Unibertsitatean, EH Bilduk zazpi zinegotzi lortu zituen, eta beraz, gehiengo absolutua. EAJren hautagaitzak 2019an lortu zuen kopuruaren laurdena galdu zuen, eta bost zinegotzietan jaitzi zen. PSE-EEK bereari eutsi zion, eta Elkarrekin Podemosek ez zuen tokia lortu udaletxean. Mikel Arruti —oraingoan bai, 2019an egindako saiakeraren ondoren— izendatu zuten alkate.

Pasaian ere aldaketa izan zen. Teo Alberro buru zuen zerrendak barruti guztietan garaipena lortu, eta abstentzioak gora egin zuen tokietan ere botoak irabazi zituen. EAJk eta PSE-EEK beharakada izan zuten; batez ere sozialistek, ia zortzi puntu galdu baitzituzten, eta jeltzaleak bigarren indar izan ziren. Podemos-Aliantza Berdeak zinegotzi bat lortu zuen. ✕

Ondartxoko pabiloi zaharrei, agur

ERRENERIA-ORERETA. Udalaren eta eraikin bateko bizilagunekin adostasunera iristeko urte askoko negoziazioen ondoren, maiatzaren hasieran hasi ziren Ondartxoko pabiloiak eraisten. Auzotarraren eskaera historikoa izan da haiek botatzea. 400 metro koadroko orubea libre uztea da eraisketa horien helburua, hartara berrurbanizatu eta auzoa biziberritzeko pausoak emateko.

Martzelina bertsozale elkarte sortu dute

OIARTZUN. Oiartzungo bertso eskolak izaera aldatu zuen, eta Martzelina Lopetegi Olaizen izena daraman elkarte bilakatu zen. Lopetegiren izena ahanzturatik ateratzeko ahaleginean hasi ziren Oiartzungo Bertso Eskolako kideak, eta tramite burokratikoak egiteko ikusi zuten hobe zela elkarte izatea. Bertsozaleen mugimendu bat gorpuztu nahi dute Martzelina izenarekin. Urtea emankorra izan da, hainbat saio egin baitituzte 2023. urtean zehar.

Auzogileei aitortza egin diete, plaza batekin

IRUN. Larreaundiko festak bereziak izan dira aurten. Maiatzaren 1arekin, Irungo musika bandaren kontzertua baliatuz, auzoaren alde urte luzez aritu diren Roberto Iparragirre eta Migel Burgete omendu zituzten. Mirarietako Ama Birjina eta Eguzkitzalde kaleen arteko pasabide edo plazatxo horretan plaka bat jarri zuten, «auzogile» horien omenez.



DESAFIOA, SAGARDO EGUNETAN

OIARTZUN ETA LEZO

Oiartzungo eta Lezoko sagardo egunetan desafio bana egin zuten bi udalerrietako ordezkariak osatutako taldeek. Erronka bota zieten elkarri lezoarrek eta oiartzuarrek. Norgehiagokaren lehenengo zatia Oiartzunen egin zuten, eta etxeokak nagusitu ziren. Bigarrena Lezon izan zen, eta han ere etxeokak izan ziren garaile. Herri kiroletan aritu ziren lehian, nor baino nor.

Motora Mugin sartzeko akordioa lortuta

PASAIA. Maiatzean iragarri zuten, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak eta San Pedro eta Donibane lotzen dituen motoraren kudeatzaileek garraiobidea Mugi txartelaren barruan sartzeari erabaki zuten. Indarrean sartzeko data zehatzik ez zuten jarri akordioa lortu zela iragarri zutenean. Tarifazioaren berri bai eman zuten, ordea.

Horrela, 0,96 euro bidaiako, lehen tarteko bidaiarientzat (hilean hogeitabi bidaira arte). 2022ko irailean abian jarritako %50eko deskontuak indarrean jarritzen duen bitartean, prezio hori 0,48 eurokoa izango da. beste garraibide publikoekin egindako transbordoak doakoak izango dira Mugi txartelarekin ordaindu badira, eta orain arte bidaiak bakoitzeko 1,10 euro ordaintzen zuten 6 urtetik beherako haurrek doan bidaiatuko dute motoran.

OLHUI | IMFPB

Urte berriari begira, gazteak aurrera!

Pasaia Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua

Bidasoa kalea, 1-3, Trintxerpe, Pasaia.
943 40 48 94 www.fpb-olh.pasaia.org olh-fpb@pasaia.net

FAKULTADEKO DEKANO
BURBUZU JAIKURPEREKO GOBERNUO BARRU

Alderdi guztiek egin diote harrera alarde parekideari

Estreinakoz, Irungo alkate batek harrera egin dio alarde ez baztertzaileari, baita EAJk eta PPK ere. Bandera, baina, oposizioko kideen eskuetatik jaso zuten alarde parekideko ordezkariak.

ERIK GARTZIA EGAÑA IRUN

Egun historikoa izan zen 2023ko ekainaren 30a. San Martzial Eguneko jai handiko ekitaldi nagusian ordura arte ikusi ez zena ikusi ahal izan zen: PSE-EE, EAJ eta PPKo ordezkariak harrera egin zioten alarde ez baztertzaileari. Alarde parekideko kideek 25 urte pasa behar izan dituzte alkatea balkoian ikusteko. EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek, urtero bezala, harrera egin zioten gizon zein emakumeak barnebiltzen dituen desfileari. EH Bilduko ordezkari Oihana Brionesek eman zion hiriko bandera Bidasoa konpainiako Iker Monterori.



Alderdi politiko guztiek egin zioten harrera alarde ez baztertzaileari. Mikel Del Val

Jose Antonio Santanok —artean alkate zen— agerraldia egin zuen harreraren ondoren. PSE-EEko, EAJko eta PPKo udal bozeramaileekin, hau da, Miguel Angel Paezekin, Xabier Iridoirekin eta Iñigo Manriquerekin, hurrenez hurren. Alkateak nabarmendu zuenez, «berritasun» bat izan zen egun hartan. Kanean «normala» zena udalean normala ere izatea nahi du Santanok, eta ordura arte helburu bat izan zutela: hiriko bizikidetzaz ez aztoratzea. «Hori lortu dugu. Gaur zirkulu bat ixten duen pauso bat ematen ari gara, Irunen errealtatea islatzen

duena». Orduko alkatearen esanetan, alardea bizitzeko «bi modu» daude, eta hala izatea desio dute hiru alderdi horiek. EH Bildu eta Elkarrekin Podemosi kritika egin zioten ez zietelako alarde baztertzaileari harrerarik egin. EH Bilduk erantzun zion beraiek parekidetasunaren alde daudela.

Bestalde, beste berritasun bat izan zen alarde parekidean: estreinako aldiz, San Migel konpainia atera zen. Urtebete lehenago sortu zen, eta prestaketa lanetan aritu ondoren, bete zuten «ametsa».

Zaharrak berri

Plano instituzionalean keinu berriak izan badira ere, bi gertakarik zapuztu zuten festa beharko lukeena. Alde batetik, ekainaren 22ko entsegu batean, San Juan plazan, emakume talde bat txilibitua jotzen hasi zen. Gizon gazte talde bat oihuka hasi zitzaien, joateko esanez. Alarde Parekideak gogor salatu zuen iraganeko beharko lukeen gertaera.

Bestalde, ezker abertzaleak salatu zuen Irungo Udalak txosnetan bi momentutan musika kentzeko eskaria egin zuela eta bi uneak alarde baztertzailearen jarduerak izan bitartekoak zirela. ✕



Urte berri on!

ERRENTERIA

NIESSEN MERKATALGUNEA

Errenteriako Azoka, 12 - Tel.: 943 51 63 13

BERAUN. Aita Donosti, 6 - Tel.: 943 51 93 21

IZTIETA. Oartzun kalea, 11 - Tel.: 943 34 10 67

FANDERIA. Fanderia etorbidea, 17 - Tel.: 943 34 15 55



IKER MURILLOK AITORTZA JASO DU

PASAIA

Iker Murillo Badiola dantzari antxotarrak omenaldia jaso zuen herritarren partez ekainaren 10ean. Pasaia Dantza Festibalaren barruko ekitaldia izan zen. Dantzariak eta Vitali Safronkinek urtarrilaren 21ean utzi zituzten oholtzak, Donostiako Viktoria Eugenia aretoan. Ekitaldian bere ibilbidea errepasatu zuen, baita eskerrak banatu ere, eta dantzari lotuta jarraituko duela gogorarazi zuen, Iker Murillo Studio 24 akademiaren bitartez ikasitakoa dibulgatuz.

Argitturri energia komunitatea sortu dute

OIARTZUN. Ekainean argitu zen Oiartzungo energia komunitatea: Argitturri. Hainbat oiartzuar urtebete inguru lehena hasi ziren lanean, Oiartzungo Udala bidelagun zutela, Goiener energia kooperatibaren laguntza eta aholkulariztarekin.

Proiektua hiru hanketan bermatuta jaio zen: herritarrak, erakundeak eta kooperatiba bera. Bide publiko-komunitarioa urratu nahi du Argitturrik. Burujabetza da komunitatea sortu dutenen kezka nagusienetako bat, eta horrela ikusi zuten hutsunea dagoela adibidez elikaduraren alorrean, baina baita energian ere. Ekaineko aurkezpen ekitaldian iragarri zuten, energia eurek sortzeko asmoa dute, eta horretarako bide egokienak plaka fotovoltaikoak dira. Kooperatibista bila hasi ziren orduan, bai herritarren artean baina baita enpresen artean ere.

Kooperatiba sortu zuten, Argitturriren talde dinamizatzaileak azaldu zuten. «Komunitatean erabakiak hartu nahi ditugu, energia nola bideratuko dugun aukeratzeko».

Energia sortzeaz gain, beste hainbat gai ere ukitu nahi dituzte, hala nola pobrezia energetikoarena esaten zaiona. Urratsez urrats joango dira, hala ere, subirautzararen bidean.

Touringek lehen mendeurrena bete du

ERRETERIA-ORERETA. Touringek denboraldi berezia izan zuen 2022-23a. Bere mendeurrena ospatu zuen futbol klubak, eta ekainaren 24a izan zen egunik handiena. Egun osoko egitaraua prestatuta, ehunka lagun atera ziren kalera ospatzera. Urtean zehar ere hainbat izan ziren egindako ekitaldiak, gehienak herrira begirakoak.

‘Lur urratua’, jazoerak ez errepikatze

LEZO. Etxetxo memoria historikoa lantzen duen taldearen ekimenez, *Lur urratua* dokumentala estreinatu zuten ekainean. Katiuskak estudioko Gurutze Susperregi eta Kepa Gonzalez dira lanaren zuzendari eta sortzaileak, eta 64 lezoarren parte hartzea izan zuen. Frankismoko esklaboak dira dokumentalaren ardatza.

Herriartekoa Oiartzuna, bigarren urtez jarraian

OIARTZUN. Oiartzungo esku huskako pilotariak hirugarrenez lortu dute Herriarteko Txapelketa irabaztea, Azpeitia —2022an bezala— garaituta. Zaldibia, Azkoitia eta Ataun utzi zituzten atzean aurretik. Euskal Herriko txapela ezin izan zuten eskuratu.

Fauna y Flora
HANDCRAFTED · SWSLEY · INSPIRED BY NATURE

HOFF

carhartt

NÜMPH

Loreak Mendian

KALIMA

emakume eta gizonentzako arropa eta osagarriak

Biteri 25. Erreterria-Orereta. Tel.: 943510372

Nagore Laffage Casasola hil zutela 15 urte pasa direnean

Asun Casasolak 15 urte daramatza biolentzia matxista bukatzeko kontzientziazio lanean, bere alaba Diego Yllanesez hil zuenetik. Jaso duen justizia bakarra «jendearen babesa» dela azaldu du.

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN IRUN



M8 Asanblada Feministak uztailearen 7an antolatutako omenaldia. A. Aranburu

2023ko uztailean 15 urte bete ziren Diego Yllanesez Nagore Laffage irundarra hil zuenetik Iruñeko sanferminetan. Orduetik, urtero oroitzen dute Laffage Iruñean bertako Astelehene Lilakoek bultzatuta, eta Irunen ere hainbat omenaldi egin izan dira, baita 2023an ere. Laffageren ama, Asun Casasola horietan guztietan izan da beti.

Aurtengo etxeko omenaldia Palmera Monteroko Nagore Laffage Casasola parkean egin zen uztailearen 7an, M8 Asanblada Feministaren ekimenez. Herriarren erantzuna zabala izan zen, pla-

za bete zelako. Jose Antonio Santano orduko alkatea, eta Cristina Laborda Berdintasun zinegotzia ere bertan izan ziren. Casasolak hitza hartu zuen eta borrokan segitzeko deia zabaldu zuen: «Borrokan segitu behar dugu, mundu hau hobea izan dadin, eta Nagoreri gertatu zitzaiona berriz ere gerta ez dadin».

2008an Nagore Laffage hil zuenetik, Asun Casasola eskoletan dabil lanean indarkeria matxista desagertu dadin, Nagore dokumentalarekin. Gaiaren gaineko kontzientzia handitu dela uste du Casasolak, baina oraindik ere lanean ja-

rraitu behar dela ziur da. Horretan dabil han eta hemen.

Alaba hil zuenetik egindako bidean, justiziaren gaineko ezinegona azaldu du beti Casasolak, hori «porrotik handiena» izan dela errepikatu izan du eta, zehazki, zinpeko epaimahaiaren zeregina deitoratu du. Uztailean gogorarazi zuen zalantzan jarri zutela laguntza eske telefonoz hots egin zuena Laffage izatea, «traizioa akabatu zuten horrekin». Bere alabarena bezalako kasuetan zinpeko epaimahaiaren «kontra» dagoela adierazi zuen aldi berean: «Beti esan izan dut auzi honetan hiltzaileak botere soziala zuela. Nire inguruko bati gertatu izan balitzaio, zigor izugarria jasoko zukeen».

Casasolak azpimarra jarri zuen egungo justizia sisteman «garrantzitsua» dela «nork hiltzen zaituen», zein estatus sozialekoa den hiltzailea, alegia. «Hiltzailea anonimoa balitz kartzelatik irtengo zen orain, ezezaguna izango zen eta inork ez luke Nagoreren kasuaren berri izango», Casasolaren ustez. «Justizia eduki dut, baina jaso dudana babesagatik izan da, dokumentalagatik, jendeagatik. Ez dut justiziarik eduki, ordea, Justiziaren partetik» ✕

Aldabe Mendia, 31 • 20301
IRUN
Elizalde Herri Eskola • 20180,
DIARTZUN
943 61 88 39 / 615 79 05 10

@aunba_trikiti_eskola
Aunba Trikitixa Eskola

Trikitixa eta panderoa ikasteko aukera metodo ezberdiñen bitartez.
-6 urtetik aurrerako ikasleei zuzendua, adin mugarik gabe.

info@auntxatrikitieskola.com
inaki@auntxatrikitieskola.com
WWW.AUNTXATRIKITIESKOLA.COM

‘Estereotipoak hautsiz’ inziatiba sortu da

ERRENTERIA-ORERETA. Aurreiritziak ezabatzeko, eta zehazkiago, ijitoen gaineko estereotipoei aurre egiteko *Estereotipoak hautsiz* kanpaina martxan jarri zuen uztailean Kamelamos Adikerar elkarteak. «Berritzaile» gisa definitu zuen inziatiba elkarteak, «gure gizartean ijitoen kontrako jarrera borrokatzeko sortua». Hiru egun iraun zituen kanpainak, Madalen Jaien ondoren, uztailaren 28an hasi eta 30ean bukatu zen.

Helburu nagusia ijitoen komunitatearen aurkako diskriminazioaren gainean kontzientzia sortzea izan zen, eta luzaroan iraun duten estereotipo negatiboak desagerraraztea. Horretarako zazpi panel diseinatu zituzten: «Nabarmentzeko moduko ijito garrantzitsuen istorioak azaldu ditugu bertan». Panel bakoitzak QR kode bat izan zuen, eta horrek aukera eman zien bisitariei pertsonaia bakoitzaren gaineko informazio zehatza eskuratzeko». Kanpaina bukatzeko, kartel guztiak Zumardian batu zituzten, eta bertan Sofia Kovalevskayaren historia kontatuko zuten. Azken egun horretan, gainera, ijitoen kontrako sarekada handia oroitu zuten: 1749ko uztailaren 30ean ijitoak sarraskitzeko egindako saiakera Fernando VI. erregeak agindu zuen, eta Ensenadako markesak antolatu. Ijito guztiak atxilotu eta kontzentrazio esparruetara eramatea izan zuten helburu.

Kamelamos Adikerar 1990ean sortu zen, eta ijitoen eskubideak eta ongizatea hobetzen eta defendatzen dabilta.



ONGIETORRIA SAHARAKO HAURREI

PASAIA

«Sahara libre» oihuen artean eman zieten ongietorria uztailaren 22an, Donibanen, Oporrak Bakean programaren barruan Euskal Herrira iritsi ziren haur sahararrei. Harrera bero eta jendetsua izan zen, Donibaneko Bixi Bixi elkarteak eta Oiartzungo El Watanek antolatua. Bixi Bixikoek bisita itzuli zuten abenduan, Saharan izan ziren hango egoera ezagutzen eta hainbat elkartasun lan egiten.

Urrezko Intsignia herritarren erabakia

HONDARRIBIA. Udal gobernu berriak Hondarribiko Urrezko Intsigniaren onuraduna herritarren parte hartzearen bidez hautatuko zela adierazi zuen uztailean. Hiriaren jardunean «aktiboki eta nabarmen» lagundu duten pertsona fisiko edo juridikoei ematen diete oroigarria, iraileko herriko festen testuinguruan.

Carol Atxukarrok, hondarribiarrek hala erabakita, jaso zuen aurtengoa irailaren 7an, Igor Enparan alkatearen eskutik. «Bere meritu eta aintzatespen profesionalagatik» saritzeaz gainera, «LGTBIQ+ mugimenduari egindako ekarpen eta bultzadagatik eta pertsona guztien eskubideak aldarrikatzen Fenomena elkartearekin lankidetzan aritzeagatik» saritu zuten. Atxukarrok «hainbeste maitasun» eman dioten herrikideei eskerrak eman zizkien.



Ikerne Zarate





Landarbaso abesbatzako kideak saria jasotzen Balin (Indonesia). HITZA

Landarbaso abesbatzak ahots lorratza utzi du munduan

Inoizko saririk garrantzitsuena irabazi zuen Landarbasok: Asiako Choral Grand Prix. Sari hori mugarri historikoa da euskal musika koralarentzat. Baliko nazioarteko jaialdia ere irabazi zuen koruak.

IKERNE ZARATE ERRENTERIA-ORERETA

Handiak dira oso. Inoizko saririk garrantzitsuena irabazi zuen Landarbaso Abesbatzak uztailaren bukaeran: Asiako Choral Grand Prix saria. Zalantzarik gabe, sari hori, mugarri historikoa da euskal musika koralarentzat. Abuztuaren 3an egin zieten harrena herrian.

Garaipena izugarritzko esperientzia eta ohorea izan zela esan zuen Iñaki Tolaretxipi Landarbasoren zuzendariak. «Euskal Herriko talde bat grand prix batera heltzen zen laugarren aldia zen honakoa. Aurreko hirurek Europako Grand Prixean hartu zuten parte. Gu izan gara Asiakora iristen lehenak, eta gainera irabazi egin dugu», harro eta hunkituta mintzatu zen errenteriarra.

Landarbasok nazioarteko hoge sari

irabazi ditu, honakoa izan da hogeigarrena, eta dutenen artean handiena: «Dudarik gabe gure ibilbidean izan dugun saririk garrantzitsuena da. Euskal Herrian inork ez du lortu, gu izan gara lehenak, eta hori ohore ikaragarria da».

Euskal Herriko lehena

Ez zuen hutsik egin Tolaretxipik. Orain arteko saririk handiena jaso du abesbatzak; halako sari bat irabazten Euskal Herriko lehen korua bihurtu da Errenteria-Oreretakoa. Garaipenak Landarbaso non kokatu duen galdetuta, hunkituta erantzun zuen zuzendariak. «Gure lana egiten jarraituko dugu, orain arte bezala», eta onartu zuen Asia aldean pisu handia hartu duela Landarbasok garaipen horrekin. Lehiaketaren momenturik gogoangarriena saria jasotzeko ueña izan zela azaldu zuen: «Denak hor ginen, eta jakitea lehen aldia dela euskal talde batek grand prix bat irabazten duela, ikaragarria izan zen. Txaloak, besarkadak... Une hori izan da politena, horrekin gelditzen naiz».

Etxera itzuli zirenean herrikideek harroa beroa egin zieten sorpresaz. Orduko oraindik lortutako garaipenena asimilatzeke ziren Landarbasokoak. «Ez dugu hau berehalakoan ahaztuko», mintzatu ziren. «Maite zaituztegu!». ✕

Udal lorezainek akordioa erdietsi dute

HONDARRIBIA. Elai Serbitzuak SL enpresaren langile diren eta Hondarrribiko Udalak azpikontratatu dituen udal lorezainek akordioa lortu zuten enpresarekin abuztuan, 115 egunez greba egin ondoren. Tarte horretan enpresa «desagertuta» egon dela salatzen ibili ziren, eta iazko martxoaren 20an egindako proposamena «eskasa» izan zenez, greba luzatu behar izan zuten. «Maiatzaren 28aren aurretik zegoen EAJrekin hasi zen gatazka, langileen eskakizunei entzungor egin zielako, eta maiatzaren 29an udal gobernuan sartu zen taldearekin (Abotsanitz) arazoaren konponbidea non egon zitekeen aztertu genuen», azaldu zuen ELAk.

Abuztuan zehar akordioaren egituraketa lantzen aritu ziren udal gobernuarekin. Lortu zuten akordio horri esker, azpikontratako langileak udal langileekin parekatu dituzte. Horrek batez besteko %20ko soldata igoera ekarri die, baita lan orduen murrizketa ere, urteko 108 ordukoa. Aldi berean, akordio horri esker langileek lortu dute enpresak kendutako dirua berreskuratzea, konpentsazio eta absortzio klausula ezerezean uztea, eta sortutako atzerakinen dirua jasotzea (iazko irailetik aurrera). ELA: «Argi dago langileen borroka eta borondate politikoa uztartzen direnean administrazioak azpikontratek baldintza duinak lor ditzaketela».

ELAko iturrien arabera, langileek «oso baikor» baloratu zuten akordioa. Gero, hitzarmen bat garatzen hasi ziren, hurrengo esleipenarekin batera indarrean sartuko dena.



Alaine Aranburu



EURIPEKO EUSKAL JIRA

IRUN

Hiru eguneko festa izan zen 2023ko Euskal Jira, abuztuaren 4tik 6ra. Irun-go kaleetan eta Urdanibia plazan egin ziren jarduerak, euripean asko. Lehen egunean Korrontzik kontzertua eman zuen. Bigarrenena egun handiena izan zen, eta bederatzi gurdi atera ziren desfilean; antolatzaileek herri bazkaria bueltatzea eskatu zioten udalari, uste baitute «modu egokiena» dela jende gaztea erakartzeko. Azken egunean Gipuzkoako Pentatloi Txapelketa egin zen.



Sinadura bilketa zubia irekitzea eskatuz

IRUN. Enegarrenez antolatu ziren Txingudi badiako herritarrak Etorbidearen zubia ireki zezaten eskatzeko. Hala, sinadura bilketa bat abiatu zuten hendaia-rrin inizatibaz abuztuan, eta orotara 12.654 pertsonak sinatu zuten. Ondoren, Pirinio Atlantikoetako prefetari bidali zizkioten eskaera gisa.

Haien eskaera «urrats herrikoi, humanista, baketsu, apolitiko eta akonfesionala» izan zela adierazi zuten.

*Eta horrela bizitzen gera
sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu gabe:*

*lana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera
gogorki loturik gaud.*



OIARTZUNGO
UDALA



IRAILA

«Guztiona den alarde parekidea», gero eta hurbilago

Konponbidearen aldeko keinuz betetako desfilea egin zuen irailaren 8an Jaizkibel konpainiak. Lehen aldiz harrera egin zien herriko alkateak, baina ez dira horrekin konformatzen.

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA
HONDARRIBIA

Historiko bezala izenda daiteke 2023ko irailaren 8a. Keinuen alardea izan zen. Batzuentzat keinu horiek nahikoak izan ez baziren ere, badirudi, pixkanaka bada ere, alardearen gatazkan gauzak aldatzen ari direla. Konponbidearen bidean lehen harria jarri zuten hondarribiarrek 2023ko iraileko egun handian.

Keinuz betetako eguna izan zen irailaren 8koa. Nabarmenena Igor Enparan alkateak egin zuen, lehen aldiz historian alkate batek harrera egin baitzion Jaizkibel konpainiari, haren ustez, «herritar



Joan den irailaren 8ko desfilekoa da goiko irudia. I.S.

guztiak» merezi baitute harrera egitea. «Zubiak eraikitze» premia aritu zen alkate berria jaien atarian, «pausoa emateko garaia» zela argudiatuz. Bada, pauso hori eman zuen udal korporazio berriak. Udaletxeko arkupeetara inoizko ordezkari politiko eta instituzional zabalena bertaratu zen, han ohikoa den moduan Jaizkibel hauspotuz.

Baina, ez zen keinu bakarra izan, harreraren aurretik eman baitzen eguneko lehen keinua. Lehen aldiz Gernikako Arbolatik abiatu ziren konpainiako ema-

kume eta gizonak. Azken 25 urteetan Alamedatik abiatu dira, ez baitute izan baimenik orain arte. Beste urrats bat.

Aurrerapausoak izan zirela ukaezin izanik, Jaizkibel konpainiakoek ere «aldaketa nabarmenak» izan zirela aitortu zuten, baina ez dira horrekin konformatzen, noski. Alkatearen pauso txalotu zuten, baina nabarmendu zuten alarde baztertzaileari ere harrera egin ziola, «eta oraindik normaltasunik ez dagoen momentu honetan, alarde baztertzaileari harrera egitea ez da hautu neutro bat», salatu zuen konpainiak. «Segregazioaren aldeko jarrera bat da, eta Jaizkibelek ez du begi onez ikusten», esan zuen irailaren 8ko desfilearen ondoren. Jomugan, azken 26 urteetako helburu berbera: «Sentsibilitate guztiak batera desfilatuko duen guztion alardea lortzea».

Herritarrek ere gatazkaren konponbidearen alde keinu bat egin nahi izan zuten. Guztion Alardea herritar taldeak sinadura bilketa bat abiatu zuen uztailean, harrera onarekin. 2.000tik gora sinadura bildu zituzten irail bukaerarako, eta horiek guztiak udal korporazioak jaso zituen. ✕



lohiart
keramika tailerra

Ikastaroak • Salmentak
Erakusketa iraunkorra

Saioa Ayala • Arkolla auzoa 33, Hondarribia

@lohiart • saiaayala@yahoo.es • 688 732 690

San Pedrok biribildu du arraun denboraldia

OARSO BIDASOA. Ekainean hasi eta irailko hirugarren asteburuan bukatu zen 2023ko traineruen denboraldia. San Pedro aritu da bereziki fin, hasi bezala bukatu baitzuen *Libia*-k sasoia, irabazten. Igoerarako play offean ere ezin hobe aritu ondoren, Eusko Label Ligan ariko dira 2024an, merezita.

Oarsoaldeko bi ontzi ariko dira traineruen goiko mailetan 2024n, beraz: Hibaikako emakumeak Euskotrenen eta San Pedro Eusko Label Ligan. Bi horiei beste bi batu behar zaizkie, orotara Oarso-Bidasoko lau ontzi ariko baitira liga nagusietan: Hondarribiko emakumeak eta gizonak ere Euskotren eta Eusko Label ligetan ariko dira berriro.

Euskotren Ligari erreparatu gero, Hondarribiko emakumeek denboraldi ona egin zuten 2023an, eta eroso mantendu zuten maila. Hibaikako emakumeak ere orpoz orpo izango dituzte gainerako traineruek aurten lehen mailan, mailaz ez jaisteko play offa irabazi baitzuten oreretarrek.

Gizonetan, San Pedoren igoeratik harago, Hondarribiko gizonetakoek ohiko duten erregularitasuna eta konpetitzeko gaitasuna azaldu zuten bai ligan zein Kontxako banderan, eta bietan hirugarren izan ziren.

Beheragoko ligetan ez zen albiste handirik izan. KAE1 Ligan San Juanek ez zuen igoeraren borrokan izaterik lortu, Hondarribia Bren antzera. KAE2n aritu zen Hibaika, borrokan, baina ez ziren ezarritako helburua betetzeko gai izan.

Alaine Aranburu



EMAKUMEENTZAKO ERREFERENTZIAKO GUNEA

IRUN

Joan den irail hasieran zabaldu zituen ateak estreinakoz Irungo Emakumeen Etxeak. Irailean zabaldu bazuten ere, urrira arte ez zituzten aktibatu bertan eskaintzen hasi diren zerbitzuak. Istillaga plazako 8. zenbakian dago etxe berria, eta udaleko iturrien arabera, «erreferentziarako espazio feminista eta aurrez aurreko bileretarako topagune» bihurtu nahi dute gunea. 2020an abiatu zuen proiektua udalak, partaidetza prozesu baten bitartez.

Nafarroako Erresumara itzuli dira oiartzuarrak

OIARTZUN. Irailaren 30ean, egun batez, Nafarroako Erresumara itzuli zen Oiartzun, 1366ra hain zuzen, lehenengoz herritar talde batek antolatutako Erdi Aroko jardunaldiei esker. Azoka, jolasak, musika, ezpata-borrokak.... Denetik izan zen oiartzuarrek lepo bete zuten Done Eztebe plazan eta inguruan.



HITZA

Aurten ere apain-apain!
Urte berri on!

MILA
ileapaindegia

☎ 623 19 19 37

📍 Madalen kalea, 7.
Erreterria-Orereta

URRIA



'Erriola' abestia sortu duen Janus Lester, Esmalterian eskainitako kontzertuan. A. A.



Martxoaren 24an giza katea egin zuten, Donostia eta Errenteria-Orereta lotuz. I. S.

KILOMETROZ KILOMETRO OSPATUTAKO JAIALDIA IZAN DA AURTENGO KMK

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA
ERRENTERIA-ORERETA

Kilometroak jaialdiaren zirrara herriko txoko batetik bestera eraman zuten 2023an Orereta Ikastolak. Urriaren 1ean festa nagusia egin bazuten ere, lehenago hasi zuten ospakizunen aroa, ez baitzuten egun bakar batera mugatu nahi izan ekitaldien zerrenda.

2022ko azaroaren 4an aurkeztu zuten

Kilometroen leloa: *Erriola*. Ordutik, besteak beste, *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxieraren 20. urteurrenaren harirako ekitaldiak (otsailean), martxoaren 24ko giza kate erraldoia, maiatzaren 6ko 12 orduko kultur erronka, edota uztailearen 19ako Urmuga jaialdiak egin zituzten.

Ikastolak balorazio oso positiboa egin zuten: «Auzolanaren eta herrigintzaren indar erakustaldia izan da, ederra».



2.000-3.000 urte inguruko altxorra


HONDARRIBIA. Aranzadi Zientzia Elkar-teak Jaizkibel V izendatutako eremuan harrespil baten berri eman zuten urrian, Brontze Aroko Jaizkibel V izenekoak. Manu Zeberio Aranzadi Zientzia Elkar-teko kideak baieztatu zuten inguru hori «multzo arkeologiko bat» dela, eta denak harrespilak direla. «Gehienak estalita daude, baina azpian altxor asko daude». Harrespilak diren zirkulu horien erdian pertsonen erraustak botatzen zituzten. «Hil ganbera bat egiten zuten normalean, gorpuzkiak bertan sartzen zituzten, eta inguruan harriz egindako zirkulu bat eratu».

Duela 2.000 edo 3.000 urteko harlauz harriz osatutako hilobi-zirkulu bat da lehengoratu dutena. Baina, berezitasun bat du: bi zutarri edo menhir bata besteari begira ditu, eta ez da ohikoa hori.

Lobato Etxerik gabe geratu da Lezo

LEZO. Urriaren 17an hasi ziren eraisten Lobato Etxea. Goizean hustu eta arratsaldean bertan eraitsi zuten osorik 100 urteko eraikin mitikoa. Bertan bizi zirenek esandakoaren arabera, «bat-batekoa» izan zen dena. «Ez genuen espero, ez digute abisurik ere eman. Hau ez da onargarria», adierazi zuten.

2023ko martxoan aurri egoeran deklaratu zuten eraikina. Ondorioz, Donostiako Auzi Epaitegiak ekainaren 27an helarazitako epai baten bitartez, uztailearen 27ra bitarteko epea eman zion udalari etxea husteko. Udalak baliabideak eskaini zizkien han bizi zirenei.



HITZA

Zubia, zabalik, baina ez denentzako

IRUN. 2021. urtearen hasieran Etorbidearen zubia hesituko zuela iragarri zuen Pirinio Atlantikoetako prefekturak, Hego Euskal Herriarekin dituen beste zortzi mugetan egin bezala. Bi urte luzez itxita izan da Irun eta Hendaia arteko bide hori, eta hori salatzen aritu dira orduetik Irungo Harrera Sarea eta beste hainbat erakunde nahiz eragile. Bada, bi urte luzeren ondoren, joan den urriaren 30ean hain zuzen ere, zabaldu zuten berriro.

Zubia ireki bai, baina Hendaia iritsi bezain laster Frantziako Poliziaren kontrola jarrita egun hartan, eta orduetik irudi berbera errepikatu da egunero. Horrez gain, urri hasieratik ere Santiago zubia poliziaz josita dago. Beraz, badiako herritarren trantsitua da zabaldu dutena, baina migranteentzako oztopo izaten jarraitzen du oraindik ere Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko bideak.

Bide horren irekiera irudikatzen bezala eman zuten Irun, Hondarribia eta Hendaia alkateek urriaren 30eko goizaldean.



HITZA

OARSO-BIDASOAN ERE, GENOZIDIOAREN KONTRA

OARSO-BIDASOA


Urri hasieran abiatu zuen Israelen kontrako eraso bortitza, eta mundu osoan bezalaxe, gurean ere kalera atera ziren herritarrak, «genozidio» hori gogor salatzen. Herri guztietan mobilizazioak izan dira urritik. Irudia, Errenteria-Oreteran egin dako manifestazio jendetsukoa da, urriaren zokoa.



**JAKOBE
PSIKOTERAPIA
620.12.24.29**

- Haur eta helduentzako Terapia Estrategiko Laburra
- Banakako, bikote, eta familia terapia

Jakobe Batanero Álvarez - Psikologoa GZ1579 - www.jakobepsikoterapia.com
Xenpelar kalea 6, solairuartea, 5. bulegoa. Errenteria





Azaroaren 25ean Oiartzunen egindako mobilizazioarena da goiko irudia. E. Gartzia

Eraso eta hilketa guztiek erantzuna izan dute

Emakumeen kontrako indarkeria izan den bakoitzean kalera atera dira herritarrak, mugimendu feministaren ekimenez. Urtarriletik irailera, 434 izan dira salatu diren erasoak Oarsoaldean eta Bidasoan

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

2023an ere ez da izan erantzunik gabeko indarkeria matxista kasurik. Oarsoaldeko nahiz Bidasoko herrietan emakumeen kontrarom erasoak izan direnean, nahiz Euskal Herrian emakumeak hil dituztenean, mugimendu feministaren ekimenez herritarrak kalera atera dira ez hemen ez inon emakumeen kontrako indarkeriak ez duela existitu

behar esateko. Dozenaka izan dira elkarretaratze eta mobilizazioak, herri guztietan. Horiek guztiak azaroaren 25ean gorpuztu ziren, Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunean. Azaroaren 30eko greba feminista orokorra hurbil izanda, beste era batekoak izan dira aurtengo A25eko deialdiak.

HITZA-k jasotako datuen arabera, 2023ko urtarriletik irailera 434 izan ziren indarkeria matxistagatik Irungo eta Errenteria-Oreretako Ertzain Etxeetan jarri ziren salaketak. Gainera, epailearen aginduz Ertzaintzaren babesa duten emakumeak 438 dira bi eskualdeetan (226 Bidasoan, eta 212 Oarsoaldean). Alta, salaketen kopurua hazi egin da 2022ko epe berberarekin (urtarrila-iraila) alderatzen bada, %6,89an zehazki. Herriz herrikako analisia eginda, emakumeen kontrako erasoak bereziki hazi dira Hondarrribian azken urtean,



Mikel Esnaolaren txapela, eta aitortza

HONDARRIBIA/LEZO. Mikel Esnaola lezoarrak irabazi zuen azaroaren 5ean Hondarribiko Itsas Etxean egin zen Gipuzkoar Erako Euskal Herriko V. Aurretiko Txapelketa Nagusia. Oarsoaldeko dantzarien emaria ez zen horretan gelditu, Mattin Etxebeste oiartzuarra bigarrena izan zelako, eta Ane Jaunarena lezoarra hirugarrena. Orotara hamar dantzarik parte hartu zuten txapelketa horretan.

Azaroaren 20an Lezoko Udalaren eta lezoarren aitortza jaso zuen Esnaolak (irudian). Udaletxeko areto nagusian harrera egion zioten udal agintariek eta Zubitxo Euskal Dantza Taldeko ki-deek. «Lan asko egin dugu garaikur hau irabazteko, eta orain herriari eman nahi diot», esan zuen aitortza ekitaldian dantzari gazteak. Tomas Murua-ren trofeoa udaletxean utzi, baina beste bat jaso zuen txapelkunak, harro: Lezoko armarria.

Agintaldi Plana, Agustinak eraikinean

ERRETERIA-ORERETA. Errenteriako Udaleko udal gobernu taldeak 2027ra arteko Agintaldi Plana aurkeztu zuen azaroaren 24an: zazpi erroka eta 62 proiektu barnebiltzen dituen plana da. Dozenaka gonbidatuk entzun zituzten proposamenak, herriko hainbat esparrutakoak. Aurkezpenak, baina, berezitasun bat izan zuen: Agustinak eraikinen estreinaldia izan zen. Kultur eta Sormen Industrien Poloa izango da Agustinak auzoko eskola izandakoa.



HITZA

Aston Villarekin elkartu da Real Union

IRUN. Realarekin zuen hitzarmena hautsi, eta Ingalaterrako Aston Villa taldearekin akordioa izenpetu zuen Real Unionek azaroaren 28an. Igor Emery txuri-beltzen presidentek adierazi zuenez, lankidetzazko hitzarmen horri esker, kluba «nazioartean» kokatuko da, «gure gazteen garapena hobetuz». Bi klubuen arteko akordioa «historikoa» dela esan zuten bi aldeek aurkezpen agerraldian.



Iruñeko Hitza

XAKIB LAXGARREN BIGARREN BEHOBIA

OARSO-BIDASOA

Xakib Laxgarrek, Irunen bizi den errenteriarrak, irabazi zuen azaroaren 12an jokatutako Behobia-Donostia lasterketaren 58. ekitaldia gizonen kategorian, ibilbide berriaren marka hautsiz 59 minutu eta 55 segundoko denborarekin. Haren bigarren Behobia izan zen, 2019koa ere irabazi zuelako. Emakumeetan, berriz, Bidasoa Atletismo Taldeko Sara Villasante bigarrena izan zen 1.14.38ko markarekin. 30.000 lasterkaririk zeharkatu zituzten Irun eta Donostia arteko errepideak.



**EUSKARA
ELKARLANEAN**

PASAIKO UDALA



Abenduaren 19an aurkeztu zuten Luzuriagarako proposamena. Urko Etxebeste

Luzuriagaren bigarren bizitzaren berri eman dute

Abenduaren 19an aurkeztu zuen Pasaiaiko Udalak Antxoko Luzuriaga eraikina biziberritzeko eta herritarren erabilerarako egokitzeko egitasmoa. San Fermin eliza bete egin zen jakin-minez ziren antxotarrekin.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA ANT XO

Herri mugimenduaren ametsek eta lanak, batzuetan, emaitza izaten dute. Horren adibide da Antxoko Luzuriaga. Mende honen hasieran Antxotarrok Historia Mintegiak eta 2014tik Luzuriaga Martxan plataformak hasitako bidea lurrera ekarri zuen Pasaiaiko Udalak abenduaren 19an, Antxoko Luzuriagako eraikina eraberritzeko eta herritarren erabilerarako egokitzeko proiektuaren zirriborroa aurkeztu zuelako.

Eragileen asmoa zen barrutiko industria, gizarte eta historia ondare den eraikina mantendu eta Antxoren beharreta-

ra egokitzea. Bide horri ekiteko finantzazioa lortuta —sei milioi euro Espainiako Gobernuak eta EH Bilduk adostu zituzten, eta beste hiru Eusko Trenbide Sareak emango ditu topoko lanengatik Azoka eraitsi zutelako— eraikinaren espazioak nola antola daitezkeen azaltzea izan zen San Fermin elizan egindako batzarraren asmoa. Oro har, bertaratuen onespina jaso zuen proiektuak.

Proposatutakoaren arabera, askotari-ko erabilerak izango dituzten aretoz beteta izango da tankera modernistako (1947an eraikia) edifizioa. Bost gune nagusi identifikatu zituzten, ordea: sarre-rako plaza; espazio eszenikoaren eremua; liburutegia eta ikasketa gela; ariketa fisikoa eta entseguak egiteko aretoa; eta kafetegia eta aterpetxea barnebiltzen dituena. Baina Vaumm Arkitektura estudioko kideek —egitasmoaren egileek— azaldu zuten, premisa nagusi bat ezarri diete espazio horiei: «Guztiekin gauza guztiak egiteko balioko dute».

Otsailean hasiko den parte hartze prozesu baten bidez adostuko dira Luzuriaga berriaren kudeaketa eredu eta



Santanoren lekukoa hartu du Labordak

IRUN. Azaroaren 27an iragarri zuen Jose Antonio Santanok Irungo alkate kargua utzi, eta Espainiako Gobernuko Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Estatu idazkari bezala jarraituko zuela bere ibilbide politikoa. Udalean ordezkoa ezartzeko makineria martxan jarri, eta abenduaren 13ko ezohiko udalbatzarrean erabaki zuten zinegotziek (aldeko 10 boto, PSE-EEko zinegotziena; eta 15 zuri) Cristina Laborda Albolea (PSE-EE) izango dela hiriko alkate 2027ko maiatzera arte. Beraz, lehenengoz, Irunek emakumezko alkatea izango du.



Gobernu akordioa Hondarribian

HONDARRIBIA. Aste askotako negoziazioen ondoren, eta bi alderdietako militanteen babesarekin, Abotsanitzen eta EH Bilduk Hondarribiko Udaleko gobernua elkarrekin eratzeak akordioa izenpetu zuten abenduaren 19an. «Diferentzien gainetik aniztasunari balioa eman» diete bi alderdiek, «aldaketaren agintaldiari» ekiteko.



HITZA

UEMAko kide dira Lezo eta Hondarribia

OARSO BIDASOA. Hondarribia eta Lezo Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kide dira abenduaren 16tik. Erakundearen batzarrean bi udalerrien eskaera onartu zuten, aurretik tokian tokiko udalbatzek babestu zutena. Biak historikoki udalerri euskaldunak izan arren, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea murrizteko «hizkuntza politika eraginkor eta ausartak garatzeko beharra» aldarrikatu zuten bi alkateek.



Alaine Aranburu

Iztietako anbulatorioa, kezka iturri

ERRETERIA-ORERETA. Iztietaiko anbulatorioko langileen murrizketak kezkatzen dituelako, manifestazio oso jendetsua egin zuten abenduaren 16an. Aldi berean, dagokionari neurriak har ditzan eskatzeko sinadura bilketarekin hasi ziren. Errenteria-Oreretako auzo elkarteak, Duintasuna elkarteak, eta mugimendu feminista ari dira bideratzen herritarren ezinegona mobilizazioen eta beste hainbat ekintzaren bitartez. Oarsoaldean erabiltzaile gehien dituen anbulatorioa da Iztietaikoa.

Iñigo Muguruzak bere txokoa du Moskun

IRUN. Abenduaren 17an beteko zituen 59 urte Iñigo Muguruza musikari musikotarrak. Egun horretan, merezi zuen omenaldia egin zion auzoan bertan Moskuko gazteriak «musikari erreferenteari». Omenaldia etxekoa, gertukoa eta intimoa izan zen, lau haizetara zabaldu gabekoa. Bertan, besteak beste, Ane Borreguero Oliden artista irundarrak Muguruzaren omenez margotutako murala inauguratu zuten. Joxe Ripiau taldearen *Paradisu zinema* abestiaren zati bat dago idatzia Peña kaleko sorkuntza euskarrian: «Leku hau ametsak forjatzen diren materialarekin egina dago».



Alaine Aranburu

Hiru hildako Gi-636 errepidean

LEZO. Iluna, oso, izan da abendua trafiko istripuei dagokienez. Hiru hildako izan dira Gi-636 errepidearen Lezoko zatian, bi istriputan. Metro gutxiko aldea dago bi ezbeharrak izan ziren tokien artean.

Lehen abenduaren 3ko goizaldean izan zen: bi autok aurrez aurre jo zuten. Horren ondorioz Lezoko eta Antxoko bi gazte hil egin ziren, eta haiekin batera autoan zihoazen beste bi gazteek zauri larriak izan zituzten.

Beste istripua abenduaren 18an izan zen. Kamioi batek eta auto baten arteko talkan, autoaren gidari arantzarra hil egin zen.

Valverderi eta gazteei euskararen sariak

OIARTZUN. Abenduaren 1ean Landetxan egindako ekitaldian jaso zituzten Oarsoarrak Euskararen Sariak Antton Valverde musikari oiartzuarrak, eta Oarsoaldeko herrietako gazte mugimenduetako kideek. Hunkiduraz jaso zuten saria Valverdek.

2023 zoriotsua opa dizuegu!

KABALA

etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak

943 53 57 51 / 605 76 52 14

Erdiko kalea 16. Errenteria. kabaladenda@gmail.com

ETXERAKO ZERBITZUA

AUTOTZERBITZU GABAGARRIA

ILEAPAINDEGIA

Urte berri on!

www.arkupehortzklinika.com

arkupe hortz klinika

periodontzia
inplantologia
kirurgia
protesia
ortodontzia
ortopantografia

Kontzeju plaza, 7 • 20180 Oiartzun • 943 57 39 23

Zozketak

	<p>"MUNA" (GANSO&Cia) clown ikuskizunerako sarrera bikoitza</p> <p>Azaroaren 17an [ostirala] 17:55etan Gezala Auditoriumean [Lezo]</p> <p>Parte hartzeko epea: 2023-11-16 14:00</p>
<p>PARTE HARTU</p>	

	<p>"KORTXOAREN DILEMA" (Tartean Teatro) antzerkirako sarrera bikoitza</p> <p>Azaroaren 19an [igandea] 19:00etan Niessen Kulturgunean [Errenteria]</p> <p>Parte hartzeko epea: 2023-11-17 14:00</p>
<p>PARTE HARTU</p>	

	<p>GARI & MALDANBERA kontzerturako sarrera bikoitza</p> <p>Azaroaren 18an [lerunbata] 20:00etan Lekuona Fabrikari [Errenteria-Orereta]</p> <p>Parte hartzeko epea: 2023-11-17 14:00</p>
<p>PARTE HARTU</p>	

	<p>"TEMPUS FUGIT" antzezlanerako sarrera bikoitza</p> <p>Azaroaren 19an [igandea] 19:00etan Landetxe Kultur Aretoan [Oiartzun]</p> <p>Parte hartzeko epea: 2023-11-17 14:00</p>
<p>PARTE HARTU</p>	

	<p>"L-UR" dantza emanaldirako sarrera bikoitza</p> <p>Azaroaren 18an [lerunbata] 18:00etan</p>
<p>PARTE HARTU</p>	

Kultur emanaldi guztietarako sarrera bikoitza



www.lezo.eus



www.oiartzun.eus



kreaktiboa

www.errenteria.eus

ADI! ASTERO SARRERA BERRIAK HK TXOKOAN

bidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus

ez galdu aukera,

HITZAKIDE

izateak abantaila ugari baititu

Bezero arreta

Edozein zalantza argitzeko, jar zaitez gurekin harremanetan
943 30 30 35 [asteleheneretik ostiralera: 08:30-16:00]
hitzakide@hitza.eus